

FUNTSEZKO SOZIETATEA

Gure enpresan garrantziakoak izango dira funtsezko sozietateak, hauek gure enpresa sendotzen eta handitzen lagunduko dute.



Dantza eskola batentzat, arrakasta izateko bazkide nagusiek honako ezaugarriak izan behar dituzte, zure jarduera eta helburuetara egokituz.

Hasteko, gure enpresak hainbat bazkide ditu. Lehenik, gure dantza irakasleak kualifikatuak eta esperiantziadunak izango dira, ikastaroetan kalitate eta ikasleen asmatzea bermatzeko.

Gainera Kalman enpresa gure bazkidea da. Honetaz baliatzen gara, gure eskolaren izen ona eta ikusgarritasuna handitzeko. Honek, gure eskola jende gehiagorengana iristen lagunduko digu.

Halaber, jantzi eta material espezializatuen hornitzaileak izango ditugu; gure ustez, dantza-jantziak, oinetakoak eta osagarriak kalitatezkoak izan behar direla pentsatzen dugu, eta gure bezeroei produktu onenak hornitu behar dizkiegulako.

Honez gain, musika ekipamendurako eta lizentziatarako hornitzaileak edukiko ditugu, musika egokia gure bezero bakoitzarentzat eta legezko lizentziak eskuragarri izateko.



Hornitzaileekin amaitzeko, areto egokiak eskaintzen dituzten instaazioen hornitzaileak lortuko ditugu. Lokalak dantzarako egokitutako zoruekin eta azpiegiturekin behar ditugu. Ahalik eta leku erosoena gure bezero eta irakasleek ahalik eta denbora onena pasatzeko eta hobeto ikasteko.

Gure hornitzaile eta bazkideek garrantzia handia dute gure enpresan, batik bat, gure ikasleen esperientzia hobetzeko, hau da, beraiek dantza ikasteko eta hobetzeko irakale onenak kontratatu, material aproposa erabili eta espazio erosoak edukitzea, horrela gure bazkideen gogobetetasuna eta fideltasuna areagotuko du.

Bestalde gure enpresak munduan zehar ospe gehiago edukitzea ahalbidetuko digu, publizitatea eginez eta beste enpresa handiekin lan eginez mundu guztitik zabalduko da.

Bukatzeko, lehiakortasunaren aurrean nabarmentzeko, kalitatezko zerbitzua eta materialak izateak zure eskola besteengandik bereizten lagunduko du. Horrez gain, bazkide eta hornitzaile egokiak aukeratuz, zure dantza eskola ezaguna eta iraunkorra izan daiteke, zure komunitatean erreferente bihurtuz.

Bixen, Julene, Elene eta Naroa